



Erabakitze eskubidearen aldeko eguna ospatuko dute ekainaren 21ean

2015eko ekainaren 12a, 444 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

GURE ESKU DAGO EKIMENA

## Alkate eta zinegotzien kargu hartze ekitaldia larunbat honetan

Ekainaren 13an abiatuko da Udal agintaldi berria, 2019ra bitarte luzatuko dena.

**M**aiatzaren 24an herri-tarrek bozka eman eta gero, hautetsi berriek kargua hartuko dute larunbat goizean. Urnietan ziurtasun osoa dago alkatearen izendapenari dagokionez, Mikel Pagola jeltzaleak gehien-go osoa eskuratu zuelako.

Zinegotzien artean eskarmentu handikoek eta hasiberriek elkar hartuta ekingo diote agintaldi berriari. Maribel Vaquero (EAJ-PNV), Mikel Izagirre (EH Bildu) edota Consuelo Frutos (PSE-EE) zinegotziek ondo baino hobeto eza-gutzen dute instituzioaren dinamika. Lehen aldia izango da, ordea, Jorge Segurado



Maiatzaren 24ko Udal hauteskundeak eta gero, karguak hartuko dituzte larunbat honetan udaletxe guztietan.

(EAJ-PNV), Itziar Artola (EH Bildu) edota Ivan Haro (PSE-EE) hautetsientzat.

**ALDERDI BERRIAK ANDOAINEN**  
Andoainen hautetsi berriz gain alderdi politiko berriak sartuko dira udaletxetan. Ordezkar

banarekin Udal politikagintzan murgilduko dira Ganemos eta Irabazi alderdiak. Aiurri honetan Olga Hernandez eta Jorge Mourinho alderdi horietako zinegotzien elkarrizketak aurki daitezke, kargu hartze ekitaldiaren aurreko adierazpenak

*Kargu hartze ekitaldiak:*  
*Ekainak 13, larunbata*  
*10:00 Andoain*  
*11:00 Urnieta*

eskainiz. Andoainen ere eskarmentu handikoek eta hasiberriek elkarrekin lan egingo dute. Hasiberrien artean daude Jon Zulueta (EH Bildu), Alvaro Gonzalez (PSE-EE) eta Imanol Goenaga (EAJ-PNV). Esperientzia handiko gizonak dira, berriz, Agustin Alberro (EH Bildu), Daniel Garcia (PSE-EE) eta Iñaki Egibar (EAJ-PNV).

Dirudienez, azken ordura arte ez da jakingo nor izendatuko duten alkate Andoainen. Carrere izan zen bozkatuena, baina alderdien arteko akordioek oposizioan utz dezakete.

[ANDOAIN, 6.ORRIALDEA]

## Garagardo Azoka asteburuan

Ostegunean hasi eta igandera bitarte, garagardotegiko edariz eta menuaz gozatzeko aukera izango da Arrate frontoiaren kanpoaldean. Kirol hitzorduek osatuko dute egitaraua.

[AGENDA, 12.ORRIALDEA]

## Leitzako jaitsiera igandean

Igande honetan Santa Krutz erretiratuen zentroak Leitzako jaitsiera egingo du. Goizeko 07:30etan Olagain auzotik autobusez irtengo dira, Leitzara iristeko 08:00etara-ko.

[ANDOAIN, 7.ORRIALDEA]

## Haurren euskal jaialdia

Talde askoren parte hartzearekin, euskal dantzen jaialdia egin zuten Andoainen.

[ANDOAIN, 8.ORRIALDEA]

## Rock jaialdia

Arratsaldeko 18:00etan hasita, nazioarteko rock doinuak larunbat honetan.

[ANDOAIN, 9.ORRIALDEA]

## Egaperen ikuskizun berria Saroben

"Begiradak dantzan"  
Egape dantza taldearen ikuskizun berriena igande honetan aurkeztuko dute.

Egape dantza taldeak etenik gabeko lanean jarraitzen du, berrikuntzaren bidetik. Eta igande honetan, hain zuzen,

muntaia berria eskainiko dute. Bi saio eskainiko dituzte, lehen arratsaldeko 17:00etan famili eta lagunartekoentzat. Eta bestea 19:00etatik aurrera, herriarrei eta dantzazaleei zuzendua. Bigarren saio horretarako sarrerak dagoeneko eskuragai daude Sarobeko bulego ordutegian eta egunean bertan lehiatilan, 18:00etatik aurrera.

### BEGIRADAK DANTZATUZ

Muntaia berrian berrogei dantzari gazte igoko dira Sarobeko taula gainera eta, denera, hamabost koreografia berri eskainiko dituzte.

Ohi dutenez, dantza berriez gain argi, jantzi eta muntaia berritzailea eskainiko dute.

Sarreraren prezioa 3 eurokoa izango da.



## Gerra hura zergatik?

Lekukotzak bildumako 9 eta 10 zenbakien aurkezpena lehenengo karlistaldiari buruzkoak

Aurkezlea: Jon Uribe

Aurkezpenaren ondoren bi zenbakiak salgai jarriko dira bertan

**Tokia: Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoa**  
**Eguna: 2015, ekainak 15.**  
**Ordua: 19:00**



KALTE HANDIAK UTZI ZITUEN ANDOAINEN, ETA IZUGARRIAK URNIETAN

# Lehen karlistaldia aztergai

Datorren astelehenean, ekainaren 15ean, Larramendi Bazkunak bere Lekukotzak bildumako bi zenbaki berri aurkeztuko ditu Bas-teroko Kulturgunean, arratsaldeko zazpitan (19:00).

Zenbaki horiek, 9 eta 10a, biak lehenengo Karlistaldia edo gerra karlistari buruzko azalpen zabala ematekoak dira eta Andoaingo gudua ekimenarekin lotuta daude.

**L**ekukotzak bildumako bi zenbaki hauek aldi berean aurkeztea erabaki du Larramendi Bazkunak, biak gai bera dutelako aztergai: 1834-1840 urteen bitartean izandako lehenengo karlistaldia, Euskal Herria eta Espainiaren zati handi bat borrokan jarri zituen. Lanaren luzera aintzakotzat izanik Larramendi Bazkunak bi zenbakitan banatzea erabaki zuen; lehenengoa, jada, 2013an amaiturik zuen, baina ikusirik bigarrena asko atzera zitekeela urte horretan izan zituen diru-galerengatik, kaleratzeko itxarotea erabaki zuen eta, orain,



azkenik, biak amaiturik, kalean jarriko ditu datorren astean.

Jakina da lehenengo karlistaldian, Andoaingen gudu odoltsua izan zela 1837ko irailaren 14an,

non 600 eta 800 gizon bitarte hil baitziren Andoaingo kaleetan eta aldirietan. Gainera, gudu horrek eta, oro har, gerrak, kalte handiak utzi zituen Andoaingen,

eta izugarriak Urnietan, azken hau guztiz kiskalirik gelditu baitzen. Orain argitaratu diren bi zenbaki horietan, ordea, ez da Andoaingo gudua aztertzen, oro har gerra baizik, irakurleek ezagut ditzaten gerra haren arrazoiak eta nondik norakoak. Aurretik, hirugarren zenbaki bat argitaratu nahi du Larramendi Bazkunak, irail aldera, Andoaingo gudua gai nagusi izango duena. Izan ere, Andoaing hiribilduaren laugarren mendeurrenean, amaitutzat eman nahi ditu herriko historian garrantzi itzela izan zuen gertakari historiko horren gaineko zabalkunde lana.

**BI LIBURUXKA BERRI**  
**LIBURUDENDETAN ESKURAGARRI**  
Astelehenean aurkeztuko diren bi zenbakiak gerrari hasiera eman zioten arrazoiak azaltzen dituzte, gerra bera nola bilakatu zen Penintsula osoan, bereziki Euskal Herrian, Katalunian eta Maestrazgo aldean, eta, azkenik, nola amaitu zen. Bibliografia historiko zabal baten azterketaren ondorio da lan hau, Jon Unanuek idatzi duena.

Astelehenean aurkeztuko diren bi zenbakiak salgai jarriko dira herriko liburutegietan, bai Andoaingen bai Urnietan, 5 euroko prezioan.



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

## Bidaiaren bukaera (X)

**A**zken partea luzea zen baina bideak hobeak zirelako eta autobusak ere bai oso egokia eta lasaia iruditu zitzaigun. Uruguaitik Sao Paulora pasa ginen; herri haundia da oso, munduko hirugarrena edo laugarrena bere tamainan. Fabrika bat kanpotik ikusi genuen, Volkswagena, eta hogeita hamar mila langile zituen. Hego Amerika osorako marka horretako kotxeak egiten ditu. Gero, Brasilgo kapitalera joan ginen, Brasiliara. Hemen ere jesuitekin egon ginen, moja euskaldun batzuekin ere bai. Hiri modernoa, dena berria.

Brasil 17 aldiz da Espainia. Handik gora jo eta Amazonas ibaira heldu ginen; herriaren izena Belém de Pará. Sinestekoa ere ez da, baina 300 km zabalera du itsasoratzean eta itsasoan sartu eta 30 km. ibaia izaten jarraitzen du. Guk ibaiez itzuli nahi genuen; kargako barkuak zeuden bakarrik eta beste erremediorik gabe oparitutako dirua probetxatuz hegazkinean bueltatzea pentsatu genuen. Askok harritu ginen zein haundia den Amazonas; zer nolako zuhaiztia; abioiak orduko mila kilometro

egiten ditu eta lau bat ordu egin zituen...

Eta berriro lehenengo tokira, Bogotara itzuli ginen, bigarren kurtsoa egitera. Gerora, Segurako senideekin elkartu, bihotza berotu eta hilabete egin genuen. Euskaldun asko bisitatu genuen, baita Segurako eta Idiazabalgoak ere. Gabirikoak beste baterako uzten ditut.

Panpetako lurralde haietan zabaldu ziren milaka euskaldun, lau haizeetara bista galdu arte inor ikusi gabe. Gure lurrarekin kontraste izugarria. Pampa tamainaz Espainia osoa adinako zelai bat da. Ganadu salerosketak egiteko distantzia haundiak egin behar dituzte, laguntzaile askorekin. Jateko haragia, "a la manera criolla", horrela egiten zuten: txekor bat hil ilunabarrean, sua eginda zegoen ordurako, eta gero suaren tokian zuloa egin, txekorrari tripak eta erraiak kendu, eta larri eta guzti suaz berotutako zuloan sartu, lurrez estali eta gau osoa horrela pasa eta hurrengo egun osoan hura jan.

Euskaldun baserri haietan aurkitu nituen Auspoaren bertso liburuak. Beste liburuak ez zen, Antonio Zabalak doan bidalitakoak. Eskertzekoa.

“Triple A” taldearen eragin latza demokraziaren hasieran

## Heriotzaren triangelua



Buruntzaldea bete-betean harrapatu zuen “Triple A” delako mugimenduaren eraginak.

**H**eriotzaren triangelua "dokumentala Hernanin estreinatzen ostiralean. Atsegindegiko Plazan pantaila handian ikusi ahal izan zen, 500 ikusleren aurrean.

Ikusentzunezkoan Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Andoaingo eremuetan 1979-1981 epean gertatu ziren zazpi hilketen kronika egiten da. Ignacio Iturbide Piti andoaindarrak eta Ladislao Zabala eskuin muturreko ekintzaileek izua

*Ikusentzunezkoan Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Andoaingo eremuetan 1979-1981 epean gertatu ziren zazpi hilketen kronika egiten da*

eta heriotza zabaldu zuten herri horietan hiru bat urtez, eta estatuko aparatuen konplizitatea eduki zuten jardueraren horretarako. Dokumentalak, bi ultra horien ibilbidea berreraikitzen du batetik, eta hainbat biktimen testigantza biltzen da bestetik.

Hiru andoaindar ageri dira, horien artean: **Ramon Ansa** (EAJko zinegotzia 1979-1983an eta eraildako **Xabier Ansaren** anaia, argazkian ageri da), **Ramon Jauregi** (Eeko zinegotzia 1979-1983ko epean) eta **Imanol Ansa** (eraildako Joxe **Ramon Ansaren** anaia).

**Imanol Laburu** eta **Jose Mari Salinas** dira dokumentalaren egileak.



# Kargu hartze ekitaldia larunbat honetan 11:00etan

Larunbat honetan, ekainak 13, Udal ordezkari berrien kargu hartze ekitaldia egingo da goizeko 11:00etan hasita. Ekitaldia Udaletxean bertan izango da. Egun horretan hasita, Mikel Pagolak bigarren agintaldiari hasiera emango dio.

Azken orduko aldaketarik ez badago, hauek izango dira datozen lau urteetarako zinegotziak:

EAJ-PNV, 7 zinegotzi: Mikel Pagola, Maribel Vaque-ro, Jorge Segurado, David Rosco, Miren Martiarena, Juan Luis Goikoetxea, Mari-pi Sarasola.

EH Bildu, lau zinegotzi:



Mikel Pagola, 2011ko ekitaldian.

Ixiar Martiarena, Mikel Iza-girre, Itziar Artola, Xabier Yurramendi.

PSE-EE, bi zinegotzi: Con-suelo Frutos, Ivan Haro.

# Bostehun lagun hurbildu ziren pailazoen emanaldira



Itsasontzia eta guzti ikus zitekeen oholza gainean.

Urteroko ohiturari eutsiz, ehunka haur eta heldu hur-bildu ziren Egape ikastolara Pirritx, Porrotx eta Marimo-totsen ikuskizun berrienaz gozatzeko.

Arratsalde pasa ederra izan zen. Inñistorrak eskerrak eman nahi dizkie Udalari, Egaperi, saltokiei eta saioa ikustera hurbildu ziren ikus-leei. Datorren urtera arte!



Ehunka ikuslek adi-adi jarraitu zuten pailazoen ikuskizuna.

Lourdes Iriondo musika eskolako saioak Saroben

# Ikasturte amaierako saioak



Ikasturte amaierako piano eta perkusio emanaldiak ostegun iluntzean izan ziren. Behean, "Ahotsarekin bidaiatzen" kontzertua.



Lourdes Iriondo musika eskola-koek ikasturte amaierako ema-naldiak eskaini zituzten aurre-ko astean. Tronpeta, pianoa, perkusioa..., taldea edota ba-karka ikasitakoa jendaurrean erakusteko aukera aparta izan zen.

Perkusio eta piano jaialdiko bideoa aiurri.com gunean ikusgai dago.



UDA HONETAN  
ZATOZ ZEN EGITERA  
eta nuke, baleki, zenekien...



eman izena  
Gipuzkoako euskaltegietan



Gipuzkoa

GIPUZKOAKO  
EUSKALTEGIAK



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



## HAUTESKUNDEEN KRONIKA MUNDUAREN BESTE ALDETIK

# Mexikoko hauteskundeak Jaliskotik begiratuta



Udal hauteskunde kanpaina, Jon Ander Ubeda Aiurriko kazetariak Mexikokoa aipagai izan zuen iritzi artikulua batean. Deigarria egin zitzaion hango kanpainak bi hilabeteko

iraupena izatea. Joxeba Lizeaga urnietarrak gai horretan sakondu du, lurralde hartatik kronika idatziz. Diputatuen Kamera eta Udalak hiru urtez behin berritzen dira.

**M**exiko, zuetako gehienentzako ezaguna izango bada ere, uste dut ez diola inori kalterik egingo kokatzeak. Mexikoko Errepublikak, Estatu Batuak eta Kanadarekin batera, Ipar Amerika osatzen du. Mugak: iparraldean Estatu Batuak, hegoaldean, Belize eta Guatemala, ekialdean, Atlantiar ozeanoa, eta mendebaldean, ozeano Barea. Lur eremu izugarria da, adibide txiki batekin konturatu gintezke, hegoaldean dagoen Cancunetik iparraldean kokaturiko Tijuana 4.500 kilometro daude. Eta tamaina honetako lurraldean, klima oso ezberdinak aurkitu daitezke; Chiapaseko hezetasunez beteriko oihanetatik, Baja Californiako basamurturaino, edota, Chihuahuko 40 graduko tenperaturatik, Puebla eta Veracruz artean dagoen Orizaba mendiko zeropeko tenperaturaretaraino.

Mexikoko Errepublika, 31 estatu eta Distrito Federarako osatzen dute. Esan genezake 32 estatuk osatua dagoela, bakoitza bere parlamentua eta Gobernuarekin. Estatu bakoitzeko parlamentuek gain, Errepublikako Diputatuen kamera dago, 500 diputatuk osatzen dutena; eta senatua, 128 senatarirekin. 120 milioi biztanle gara mexikon, horietako erdiak pobreak. Gizarte gaztea da, batez besteko adina 29 urtekoa delarik. Gaztelara da bertako hizkuntza ofiziala, baina, oraindik ehundik gora hizkuntza indijena bizirik mantentzen dira. Hedatuena, Nahuatl, Maya eta Mixteca direlarik.

## GASTRONOMIA

Janari guztiei pikantea eransteko duten joerarengatik ezaguna bada ere, herrialde hontako gastronomia oso aberatsa dela esan genezake. Estatu bakoitzak ditu bere plater bereziak. Fruitu eta barazki aldetik oso aukera zabala du. Hori bai, gazteen artean nagusitzen ari da Estatu Batuarren zabor-janaria kontsumitzeko ohitura, eta ondorioz, gero eta gizen gehiago daude. Edariei dagokionez, tekila da "edari nazionala", eta bertako garagardoa erruz kontsumitzen bada ere, Mexiko Coca Cola kontsumoan munduan lehen postuan dago.

## INDARKERIA

Mexikok egoera oso zaila bizi du indarkeriari dagokionez. Iazko zifrarik oraindik ez da eman ezagutzera, baina, 2013an, ia 23.000 hildako utzi zituen biolentziak.



Botu emaila bat aurreko igandean botua emateko orduan.

Narkotrafikatzaileen taldeak jaun eta jabe dira estatu batzuetan, eta agintariak eta polizia bat eginda daude beraiekin hainbat lekuetan. Mundu osoan oso ezaguna egin zen 2014ko irailaren 26an Guerrero estatuko Ayotzinapa herrian gertatutako 43 ikasleen desagerketa, baina, hori errealitatea erakusten duen botoitxo bat besterik ez da. Duela aste pare bat, hauteskunde kanpaina batean, Jalisco-tik Michoacanera doan errepidearen alboan rantxo batean, polizia eta narkotrafikatzaileen arteko tiroketa batean 43 hildakoren balantzea utzi zuen. Eta pasa berri den hauteskunde kanpaina, 8 hautagai, batzuek diputatu izateko, beste batzuk alkaltetzarako, erailak izan dira.

## ATEZ ATEKOA

Zabor bilketa, Mexikon ere arazo handi bat da. Berziklaketa oraindik sinbolikoa da. Klean ez dago inongo edukinontzirik, eta horrek esan nahi, zaborra, bakoitzak bere etxean eduki behar duela, eta soilik kamioa pasatzean atera litekeela. Orokorrean, egunean zehar hainbat kamioi (publikoak eta pribatuak) pasatzen dira ordutegi ezberdinetan, baina, zenbait biztanlek arazoak izaten ditu, ordu horietan etxean ez dagoelako.

## EUSKALDUNAK MEXIKON

Mexikon, 20.000 inguru euskaldun, edo hauen ondorengo bizi gara. Lurralde hain zabala izanik ez da batere erraza elkarrekin komunikatzea. Euskal Etxerik nagusia hiriburuan kokatua dago eta 200

bazkide ditu, gehienak Nafar jatorrikoak. Horrez gain, badira euskaldunen elkar-guneak Cancunen eta Celaián. Eta Athletic futbol taldeak baditu gutxienez bi peña.

## HAUTESKUNDE KANPAINA

Mitinak eta kaleetako propaganda oso agerikoak dira. Ez dute gastuetan erreparatzen, eta jendearen artean banantzen dituzte, boligrafo, aterki, kamixeta, erosketa poltsak, globoak eta abar. Mexikarrei, orokorrean ez zaie gehiegi axola kaletik alderdi baten kamixeta jantzita ibiltzea, nahiz eta beste bati botoa eman.

## HAUTAGIAK

Euskal herrian ez da ohikoa baina hemen oso naturala da, politiko berdina, gaur alderdi batean aurkeztu eta hemendik hiru urtera beste alderdi ezberdin batean egitea. Alma Ruiz, bi alderdi ezberdinetako diputatu izandakoak, esan zidan. "Somos como los futbolistas, cuando estamos preparados y tenemos gancho entre la población, los distintos partidos se interesan por ti y tras llegar a un acuerdo, nosotros nos presentamos defendiendo en ese momento a ese partido". Halare, politiko gehienak beraien alderdiei fidelak dira.

## PAREKIDETASUNA

Lehen aldiz, Diputatuen Kameran zerrendak %50 gizonenak eta %50 emakumeekin osatuak izan behar zuten, eta horretara egokitu behar izan dute,

*Euskal herrian ez da ohikoa baina Mexikon oso naturala da politiko berdina gaur alderdi batean aurkeztu eta hemendik hiru urtera beste alderdi ezberdin batean egitea*

Errepublika osoan aurkeztu diren 10 alderdi politikoak zein zerrenda independenteek. Udaletxeetarako hauteskundeetan ez da aplikatu oraingoz parekidetasun legea.

## JALISKO

Mexikoko hirubutik 500en bat kilometrotara, ipar-mendebaldean kokatzen da 125 herriz osatutako Jaliskoko estatua. Zortzi milioi biztanle ditu. Horietako erdiak baino gehiago, hiriburua den Guadalajara- inguruko herri eta hiriekin batera osatzen duen gune urbanoan bizi dira. Jalisko ezaguna da mariatxien jatorrizko lurraldea izateagatik, eta nola ez, bertan kokatzen delako Tekila herria, edari horren Jatorri Izendapena duena.

## LEGE LEHORRA

Hauteskundeak direla eta, lege lehorra edo "Ley seca" bezala ezagutzen dena aplikatu zen Jaliskoko estatu osoan. Ostiral gaueko hamabietatik igande gaueko hamabietarako 48 ordu horietan debekatuta egon zen alkohola saltzea eta kontsumitzea. Neurriaren berri honela eman zuten agintariak: "El espíritu de la medida es que la jornada electoral se lleve a cabo en paz y evitar que los ciudadanos acudan a sufragar bajo influjo de bebidas embriagantes, sino que estén conscientes al emitir su voto". Hori entzunda, adinean nahiko aurreratutako emakume baten adierazi zidan "ya vemos como elegimos estando sobrios, por una vez deberían de permitirnos votar estando borrachos".

## PAILAZOA HAUTAGAI

Duela hiru urte onartutako lege baten arabera, lehen aldiz, independenteeke ere hautagai izateko aukera izan dute, orain arte, soilik alderdi politikoek zuten aukera hori. Eta Guadalajara, kanpainako hizketagai nagusia izan da, bertako zirkoan lan egiten duen Guillermo Cienfuegos, "Lagrimita" pailazoa aurkeztu zela alkatetzarako. 26.000 sinadura bildu zituen aurkeztu ahal izateko, baina, igandean emaitze-

tan, bozken ehuneko batera ere ez zen iritsi.

## HAUTESKUNDE EGUNA

18 urtetik gorakoak bozkatu dezakete, eta horretarako aukera izaten da ikastetxetan, zein administrazioaren hainbat egoitza publikotan, baina, horrez gain, zozketa bidez hautatutako hainbat etxe partikular ere egokitzen dituzte bozkatzeko gune bezala. Giroa oso lasaia izan zen hemen Guadalajara, naiz eta Jalisko osoa kontuan izanik 39 atxiloteta burutu zituen polizia hainbat istilu txikirengatik. Parte hartzeri dagokionez, hau idazten ari naizenean (astelehen goiza) datu ofizialen arabera, ehuneko berrogeita zazpi ingurukoa izan da. Hemen normalean izaten dena baino zifra altuagoa.

Lehen aldiz, eta herritarren parte hartzea indartzeko xedearekin, hemezortzi urtez beherako gaztetxoentzako halako hautestontzi sinbolikoak jarri zituzten hainbat parke eta plazetan, eta bertan beraien "bozka" emateko aukera izan zuten, hauteskunde egunean.

## EMAITZAK

Oraindik behin betiko emaitzak ezagutzen ez badira ere, badirudi, Mexikoko alderdi nagusia den PRI alderdiak Diputatuen Kameran gehiengo osoa galdu egin duela. Pri Alderdiak, Alderdi Berdearekin bat eginik zeukan gehiengo aurreko leintzaldian, kamera horretan eta hainbat estatu zein udaletxeetan. Aipatzekoa da, hemengo Alderdi Berdeak horko antzeko alderdiekin zerikusirik ez duela. Alde batetik, lortu dute hainbat estatutan zirkoan animaliak erabiltzea debekatzea, baina, aldi berean, bizitza osorako kartzela zigorra legedian sartzeko eskatzen ari dira.

Guadalajaran eta inguruko hiri esanguratsuenetan Movimiento Ciudadano ezkerreko alderdia nagusitu da gehiengo osoz, inkestek ziotenaren kontra. PRI alderdia zegoen alkatetzan, eta inkestek berriro garaipena beraien izango zela iragartzen zuten. Bart, Movimiento Ciudadanoko jarraitzaileek festa bat inprobisatu zuten klean, eta aldiz, PRI alderdiak aurrez prestatuta zeukan ospakizuna bertan behera geratu zen.

Astelehenean politikoak hauteskunde ondoreneko adierazpenak egiten aritu ziren komunikabideetan. Hemen ere oso abilak dira arrakastak bereganatzen eta huts egiteak beste hainbat faktorei leporatzen.



Erabakitze eskubidearen aldeko deialdia Donostian

## Gure Esku Dago taldea ekainaren 21era begira



Aurreko egunetan herriko Gure Esku Dago taldeko kideak informazioa banatzen eta txartelak saltzen aritu dira.

**D**uela urtebete giza-kate historikoa egin ostean, datorren igandean erabakitze eskubidearen alde egingo dute euskal herritarrek oihalkatearen eta hautetsontzien irudikapenaren bidez. “Ekitaldi nagusiak, eguerdiko oihalkatea eta Anoetako ekitaldia izango dira. Erronka handiena, hala ere, Anoeta estadioa betetzea izango da”, azaldu dute antolatzaileek.

Hala, Andoaingo Gure Esku Dago taldeak deialdia luzatu diete andoaindarrei Donostira joateko. Sarrerak salgai daude Li, Keinu, Ernaitza, Buruntza, Iruberri eta Xaxin. 15 urtetik gorakoek sarrerak 10 euroren truke jaso ditzakete; 3 eta 14 urte bitartekoek, aldiz, 5 euro ordaindu beharko dituzte. 0-2 urtekoak doan sar daitezke, baina hala eta guztiz ere txartela hartu egin beharko dute. Mugikortasun arazoak dituztenek sarrera Internet bidez eskura dezakete. Gainera, oraindik saretze txartela bete eta oihal zatia marraztu ez duenak, aukera dauka Ernaitzan, Keinun eta Li dendan.

Herritarrek Donostira koral koloreko kamixetekin joatea animatu dituzte, jaia antolatzaiko gastuei aurre egiteko. Horretarako, Gure Esku Dago taldearekin harremanetan jarri edo ziurrenik larunbatean jarriko duten postura gerturatu beharko dute.

Bestalde, garraio publikoa erabiltzera bultzatu dute, eta egun horretarako zerbitzua indartuko dute.



### OIHAL KATEA 12:00ETAN

Eguerdian, herriz herri jositako oihalkate guztiekin Urumea ibaia inguratuko da sei zubiak lotuz. Andoain eta Urnietako herritarrek tren geltokiaren ondoan kokatuko dira, Maria Kristina eta Santa Katalina zubien artean, Astigarraga eta Hernaniko biztanleekin batera “Hernanialdea” izeneko gunean. “Oihalkatean parte hartze-ko, herritarrei alde aurretik garaiz joatea eskatzen diegu”, azaldu dute antolatzaileek.

### EKITALDI NAGUSIA ANOETA ESTADIOAN

“Gaur hautetsontzia, bihar erabakia” leloari jarraiki, 17:30ean Donostia, Iruña, Bilbo, Gasteiz eta Baionan hautetsontziak irudikatuko dira. Horrez gain, koroak, musika bandak, danborradak, erraldioak, dantzariak... izango dira. “Partehartzaile guztientzat une ahaztezina izango da”, iragarri dute.

Ekitaldia baino ordubete lehenago irekiko dira estadioko ateak. Andoainen 17. ateko sarrerak saltzen ari dira, beraz, ate horretatik sartu beharko dute.

### EKAINAK 21. IGANDEA EGITARAU OSOA

#### EKITALDI NAGUSIAK:

**12:00** Oihalkatea.  
**16:30** Anoetako ateen irekiera.

#### ALDE ZAHARRA:

**12:30** Bulebarrean herri dantzak.  
**12:30** Kalez kale kantu jira, kaskarinak eta Donostiako txistulariak.

#### ANOETA INGURUA:

**11:00** Gunearen irekiera. Jateko eta edateko aukera: sagardo dastaketa, txekor errea, taloak, kaxuelitak, edariak...

#### MINIESTADIO INGURUA

##### (ANOETAREN ONDOAN):

**11:30-00:00** Kontzertu maratona. Txosnak ere jarriko dira: ogitartekoak, taloak, edariak...

#### ILUNBE FAMILIA GUNEA:

**12:30** “Ilunbe izarrez argitu” ikuskizuna: pailazoak, suhiltzaileak, Gu ta gutarrak, Irrien lagunak... Ikuskizun hau ikusteko 5 euroko sarrera ordaindu beharko da.

**12:30** Ilunbeko kanpoko eremuan puzgarriak, taile-rrak, abentura, parkea, tirolina, apar festa... jarriko dira. Mahaiak eta aulkiak ere jarriko dira nahi duenarentzat etxetik eramandako bazkaria jan ahal izateko.

**14:00** Irri bazkaria

**15:30** Dantzaldia: Txantxariak eta Irrien lagunak.

## Garagardo azoka asteburu honetan, Arrate plazan



Desafioak girotuko du azokaren irekiera, ostegun honetan 19:30ean.

Ontzerri taldeak garagardoa eskainiko du asteburu honetan Arrate pilotalekuaren kanpoaldean. Garagardo azokarekin batera, hainbat hitzordu osagarri antolatu dituzte.

#### PILOTA DESAFIOAK

Ostegunean 19:30ean hasita pilota desafioa. Batetik, Jon Eskudero eskuz arituko da, eta aurrean izango ditu Alaine eta Elixane Jauregi palaz.

Ostiralean 21:30ean hasita, Iturzaeta memorialaren finalaurrekoak.

Larunbat arratsaldean zesta kinielak deitu dituzte, 16:00etan gazteen artekoena eta 18:00etan afizionatuena.

Igande goizean Berria txapelketako final aurrekoak jokatuko dira kadete, jubenil eta helduen mailan. Partida bakarrera, aurrez aurre arituko dira Gazteleku eta Usurbilgo Pagazpe taldeak.

## Hogar Extremeño elkartearen kultur astea



Kultur astearen hasiera ospatu zuten bazkideek, elkartearen egoitzan.

Irekitze ekitaldi baten eskutik eman zitzaion hasiera Hogar Extremeño elkartearen kultur asteari joan den larunbatean. Hainbat ekitaldi ospatu dira geroztik, eta ostiral honetan, ekitaldirik jendetsuena ospatuko da Basteroko auditorioan, dantza eta bertsoen emanaldi erakargarria baitago iragarrita. Extremadurako folklorea Virgen de Guadalupe taldeak eskainiko du, eta Galiziako Triskele taldeak. Donostiatik helduko dira bi taldeak, eta horiekin batera, Andoaingo Triana eta Zuenak elkarrekin dantza taldeek jarungo dute. Amaitzeko, Jon Belokik zuzentzen duen gaztetxoen bertso eskolak bertso saioa eskainiko du, euskaraz zein gaztelaniaz. Elkartera

bertara joan beharra dago gonbidapenak eskuratzeko.

Andoainen belaunaldiz belaunaldi gertatzen ari den kultur nahasketa islatu nahi izan dute aurtengo kultur astean antolatzaileek, eta Basterokoa izan daiteke asmo horren ekitaldirik adierazgarriena.

Larunbatean emango zaio bukaera kultur asteari. Bote eta Toka txapelketak iragarri dira 10:00etarako elkartean bertan, eta 11:00etatik aurrera, berriz, areto futbolako finalak jokatuko dira kiroldegian.

Irudian, elkartearen zenbait bazkide ageri dira hamaiketako egiten, kultur hasteari hasiera eman zion ekitaldian.

## ANDOAIN #M24

Udal hauteskundeak  
Alderdi berriak

## M24

JORGE MOURINHO ZINEGOTZIA

## Irabazi

**Andoaingo Irabazi ordezkariak hartze-ko gogotsu al dago?**

**Jorge Mourinho.** Halaxe da, bai. Hauteskunde kanpaina defendatu ditugun ideiekin aurrera jarraitzeko asmoa dugu. Esan genezake guk jasotako botoa, boto kontzientea izan dela. Gure alde egin dutenak ez dira nahastu, eta alderantziz beste hautagaitza batekin aldiz bai.

Fikzioa eginez, erabakiorrak bagina, babesa nori eman argi genuen. Asmo hori, gainera, argi azaldu dugu alderdien arteko errondan. Baina maiatzaren 24ko emaitzak ikusita ez gara erabakiorrak izango.

Gauzak horrela, larunbateko kargu hartze ekitaldian gure buruaren alde egitea pentsatzen ari gara.

**Fikzioa aipatu duzu. Egoera horretan noren alde egingo zenuket esaterik ba al dago?**

**J.M.** Bilduren gobernuari jarraipena ematea pentsatzen ari ginen. Haien jokabidea alor sozialean oso gertukoa egiten zaigu, eta ildo horretan aurrera egiten jarraitzea egoki ikusiko genuke.

**Maiatzaren 24a atzean geratzen ari den heinean, ordezkariak lortu duzuela barneratu duzue. Zail zirudiena azkenean bete da.**

**J.M.** Bai, eta pozik gaude. Gure aurreikuspenak hobeak ziren baina ez dugu kanpainako hainbat gertaeren inguruan errepikakorrak izan nahi. Hautetsia lortuta, taldeko lan dinamika bati helduko diogu. Parte hartzea izango da gure agintaldiko ardatzeta-ko bat.

**Ez zarete erabakiorrak. Askatasun handiagoa ematen al dizue horrek?**

**J.M.** Askatasuna bermatu nahiko genuke, erabakiorrak izan edo ez. Gure

ideien alde borroka egiten jarraituko dugu. Taldean erabakitakoa udaletxera eramango dugu. Eraikitzailea izango da gure jokabidea.

**EH Bilduk deitutako bilera errondaz gaine, zein beste alderdirekin bildu zarete?**

**J.M.** EH Bilduk deitutako bilera horretan izan ginen. Ez dugu beste bilerarik egin. Ez digu beste inork deitu, eta dagoeneko ez dut uste deirik jasoko dugunik.

**PSE-EE, EAJ-PNV eta Ganemos. Zer nolako gertutasuna duzue hiru alderdi horiekin?**

**J.M.** Sozialistekin bat egin genezake hainbat ekimenetan, baina hori bideak erakutsiko digu.

Jeltzaleekin lotura gutxiago ikusten ditut. Etxebizitza legean, esaterako, gure ideietatik oso urrun daude.

Ganemos gure kide ohiak dira, eta gurekin ez dute jokabide zuzena izan. Oportunismoz jokatu dute, gure lanaz baliatuz.

**Udalagintzari lotuta asmo zehatzik bai?**

**J.M.** Gobernu taldearen osaketaren zain gaude. Gure papera orain adi egotea da; oposizioan zaintza lana egitea dagokigu. Agintaldia martxan jartzen denean proposamenak egin nahi ditugu. Boletín bat martxan jarriko dugu, eta internet bidez gure jardueraren berri emango dugu.

**Stop desahucios mugimenduari oso lotuta zaudete. Zein izango da mugimendu horren etorkizuna?**

**J.M.** Astelehenero biltzen jarraitzen dugu. Batzuk Irabazin aurkeztu gara, baina beste asko ez. Stop Desahucios mugimendua ezinbestekoa da. Laster "La estafa continua" lemarekin ekimen berriak iragarriko dira.

OLGA HERNANDEZ ZINEGOTZIA

## Ganemos

**Astearte iluntzean Ganemos bezala lehen bilera irekia deitu zenuten. Zer moduz joan zen?**

**Olga Hernandez.** Ondo joan zen, oso jende gutxi hurbildu bazen ere. Ez gaude ohituta alderdiko bileretan parte hartzen. Gure asmoa, tarteka, horrelako bilera gehiago egitea da.

Elkar ezagutzeko bilera izan zen, denak ere sintonia berean gaudela ikusteko baliagarria izan zena. Erabaki garrantzitsuak hartzeko bilerak deitzen jarraitzeko asmoa dugu,

**Lan taldea nortzuk osatzen duzue?**

**O.H.** Lan gehiena Sergio Barreiro eta neu egiten ari gara. Gure asmoa jende gehiagoren inplikazioa bilatzea da. Udal ordezkariak dagokion ordainsariarekin gune bat zabalduko dugu internet sarean, gure proposamenak eta udaletxeko informazioa bertan agertzeko asmoz. Badago jende asko Udalaren berririk ez duena.

**Kargua hartuko duzu larunbatean. Animatek al zaudete?**

**O.H.** Gogotsu eta ilusioz beterik nago. Ordezkarik bakarra naiz, eta gauzak aldatzea ezinezko izango dudan arren, herriarrak betiko politikaz koteraino daudela sumatzen dut.

**Zein neurri hartu nahiko zenituzke?**

**O.H.** Lehenik eta behin udaletxeko dinamika eta nire karguaz ondo jabetu beharko dut. Etxegabetzearen egoera zein den jakin nahi dut. Mugikortasunari dagokionez zein neurri hartuko diren jakin nahiko genuke ere.

**Gainerako alderdiekin bildu zarete?**

**O.H.** EH Bilduk deituriko bilerara joan ginen. Alkateak poza agertu zuen udaletxean ezkerreko alderdi gehiago egongo garelako. Aurreko lau urteetako dinamika aldatzeko asmoa ager-

tu zuten. Gehiago osorik gabe, negoziatu egin beharko da. Arlo sozialean konponduko garela uste dut. Gu jende guztiarekin hitz egiteko prest gaude.

**Gainerako alderdiekin bilerak egin al dituzue?**

**O.H.** Ez, gurekin ez da beste inor gehiago harremanetan jarri.

**PSE-EE gertuko alderdia al da zuentzat?**

**O.H.** Ikusiko dugu, PSE-EE ezkerreko alderdia da baina eskuinera jotzeko joera izaten du. PPrekin zorrak ordaintzea lehenetsi dute, jendearen premia larriak bigarren maila batean utziz.

Gainerakoan, PSE-EEen oso jende konprometitua dago.

**EAJ-PNVtik oso urrun al zaudete?**

**O.H.** Korrante politikoa asko daude EAJren baitan. Orokorrean alderdi kontserbadorea da. Baina Urkulluk biktinekiko berriki egin duen ekitaldia txalogarria iruditzen zait. Barkamena eskatu zuen, eta hori garrantzitsua da. Politikoa guztiek ez dute berdin jokatzeko.

**Gipuzkoako Podemos alderdiak zuen zerrenda kritikatu zuen publikoki, haien siglez baliatu zinetela adieraziz.**

**O.H.** Asteartean herritarrekin egin genuen bileran ez genuen horrelako kritikarik jaso. Polemika ez da existitzen, kalean ere ez dut horrelakorik sumatu. Bere garaian argitu genuen; Udal agrupazioa osatzeko asmoa genuen baina ez zen denborarik izan. Esperientzia falta zait, eta beharbada hori da akatsa: esperientzia falta.

**Irabazirekin harremanak izango dituzue?**

**O.H.** Irabazikoekin egoteko ez dut arazorik ikusten.



Asteazken goizean aktak onartzeko batzarraldia egin zuten

## Agintaldiko azken argazkia



Asteazken goizean aktak onartzeko azken batzarraldia egin eta gero, Udal hautetsiek taldeko argazkia atera zuten uda-

letxearen kanpoaldean. Azken ekitaldia izan zen, larunbatean osatuko baita Udal ordezkari-tza talde berria.

Argazkian, agintaldiko 14 zinegotzi. Taldea osatzeko PSE-EEko Amutxastegi eta Narciso eta PPko Guerra falta dira.

Larunbat arratsaldean jardunaldia haur eta gazteentzat

## Heziketa eta birziklapena

**E**kainaren 13an birziklapenarekin eta bide heziketarekin lotutako ekintzak antolatuko dituzte haur eta gazteentzat udaletxeko plazan, 16:30etik 19:00etara. Bate-tik, bidean nola ibili behar den ikasteko asmoz, txikientzako, gurasoekin bizikletan ibiltzen ikasteko gunea egongo da. Bizikletarekin ibiltzeko ginkana eta jolasak egiteaz gain, hainbat informazio bilduko duen dekoratu tematikoak ere egingo dituzte.

Bestetik, material birziklatua- rekin hainbat sorkuntza egingo ditu ludoteketako haurren taldeak: trafiko seinaleak, minia- turazko herri baten eraikinak, edota birziklapena sustatzen di- tuzten panelak. Nerabeen talde-



Kale Heziketa programan parte hartzen duten gazteek burutu dute proiektua.

ak, aldiz, haurrei bizikletan ibiltzen erakusteko, bizikleta zaharrak moldatuko dituzte; pedala- lak kenduz, esaterako.

Herriko haur, nerabe eta gu- rasoei zuzendutako jardunal-

dia da. Antolatzaileek etxetik bizikleta hartu eta plazara ger- turatzeko gonbidapena luzatu diete herritarrei. Eguraldi txar- rarekin, Ondarreta ikastetxe- an egingo dituzte ekintzak.

### IKASTURTE AMAIERAKO EMANALDIAK



Konbo kontzertua eskaini zuten ostegun arratsaldean, eta eguraldi onari etekina ateratze aldera, musika tresnak Juani Alkain plazara atera zituzten. Bateria, biolina, saxo-

foia, tronpeta eta kitarrak hartuta ikusmin handia sortu zuten eta kalean zebilen herritar ugari gerturatu ziren kan- tuak entzutera.

## 1949an jaiotakoen bilkura



Aurreko larunbatean bazkaria egin zuten, urteroko ohiturari jarraituz.

1949an jaiotakoek Goikopla- zan bildu eta Oianumen urte- roko bazkaria egin zuten, au-

rreko larunbatean. Urtea jo- an, urtea etorri, ohiturari eus- ten diote.

## Leitzako jaitsiera igandean

Igandean, ekainak 14, Santa Krutz erretiratuen zentroak Leitzatik jaitsiera egingo du. Olagain auzotik autobusez irtengo dira goizeko 07:30etan, Leitzara 08:00etarako iristeko. Anto- latzaileek diotenez, "bakoit- za ahal duen erritmora jai-

tsiko da, eta arazorik bale- go, kotxe baten laguntza izango da. Bestalde, badago beste aukera bat. Goizeko 09:30etan auzotik irten Bi- xeraraino joan eta berriro auzora itzultzeko. Amaieran parte hartzaile guztiek ha- maietakoaz gozatuko dute.

## Gaztañaga hirugarren



Sei sagardotegietako ordezkariak, irudian.

Gartziategi sagardotegia Gi- puzkoako sagardo lehiaketa- ko irabazlea izan zen:

-Gartziategi 74,5 puntu.

-Altzueta 73 puntu.

-Gaztañaga 71 puntu.

Aurtengo edizioan epaima- haia sagardo dastatzaile adi- tuek osatu dute, guztiak ere Fraisoron diplomadun dire-

nak: Juan Zuriarrain eta Agurtzane Andueza kimiko- ak, eta Fernando Vadillo, Guillermo Castaños, Xabier Kamio eta Irati Amondarain enologoak. Epaimahaikide- ek sagardogilearen elabora- zio lana balioestea eta botila- tutako sagardoaren kalitatea kontutan hartu zituzten.

## Olatu talkan zuzenean



Alitrua Joxe Caballero eta Oskar Uribesalgo Andoaingo musikariz osatutako taldea

da. Poesia eta musika uztar- tzen duen muntaia da, Caba- llerok berak sortutakoa.



ARGAZKIAK ETA BIDEOAK IKUSGAI DAUDE WEBGUNEAN

# Haurren euskal jaialdiaren edizio berria

Igandean goizetik hasita herriko txoko ezberdinetan dantzariak, bertsolariak, musikariak eta kantariak euskal kulturgintza biziberritzen aritu ziren.

Ohi bezala Urki dantza taldeak Euskal Herri osoko taldeak gonbidatu zituen Haurren Euskal Jaialdira, dozenaka bolondresen lanari esker aurrera ateratzen dena.

**A**raba, Nafarroa eta Gipuzkoako dantza taldeak hurbildu ziren Urkik urtero antolatzen duen Haurren Euskal Jaialdia. Euskal tradizioaren erakusgarri bilakatu zen Andoain, musika eta dantza bidez biziberritu zutena. Honako talde hauek parte hartu zuten: Lesakako Tantarumairu, Debako Musika eskolako trikitilariak, Añorgako Arkaitz dantza taldea, Beasaingo Izan Izar abesbatza, Lizarrako Ibai Hega dantza taldea, Samaniego eta Bastidako dantza taldea, Debako musika eskolako trikitilariak, Hernaniko gaiteroak, Hernani, Lasarte eta Andoingo bertsolari gazteak, Kristina Solanoren trikitilari taldea, Andoingo txistulariak, Soinuak musika eskola eta Urki dantza taldea.



Urki dantza taldeko gazteak Nafarroa plazan. Iraganean eta orain Andoainen euskal folkloreari eusten zaio.



Hernani, Lasarte eta Andoingo bertsolari gazteak Beloki eta Labakarekin.



Kristina Solanoren trikitilari taldea, Goikoplazan, kalejiran abiatzeko prest.



Goikoplazako dantzaldian talde ezberdinetako kideek bat egin zuten.



Basteroko kanpoaldean dantzari taldearen saioa.



LARUNBAT ARRATSALDEAN HASITA, NAZIOARTEKO TALDEAK IKUSTEKO AUKERA

# Rock jaialdiaren edizio berria, larunbat honetan

Rock and roll musikaren atal ezberdinez goatzeko aukera izango da larunbat honetan. Geroz eta gehiago dira jaialdiaren egunean Andoainera hurbiltzen

diren musikazaleak, eskaintza erakargarria baita: Nazioarteko sona handiko taldeak dohainik ikusteko aukera. Aurtengo izarrak Flamin' Groovies dira.

## FLAMIN' GROOVIES

Aurtengo jaialdiko izar nagusiak dira, 2004an Azkena Rock Jaialdiko talde buru izan zena. Musikazaleentzat aski ezaguna da orain 50 urte sorturiko taldea. Andoainen ikusteko aukera izango da larunbat gauean.

Flamin' Groovies taldearen ibilbidea 1965ean hasi zen, Kaliforniako Los Angeles hirian. Disko ezagunen artean daude 70eko hamarkadan grabaturikoak. Besteak beste, Shake Some Action, Flamin' Groovies Now eta Jumpin' In The Night.

2013an, Jordan, Wilson eta hasierako baxu-jotzailea zen George Alexander elkartu ziren berriro. Víctor Peñalosa bateria-jotzailea gehitu zitzaion. Lauak estudioan sartu ziren material berria grabatzeko eta galdutako kantu batzuk berreskuratzeko. Orain gutxi Japonia, Australia, Londres, eta Estatu Batuetan barrena ibili dira, eta Rock And Roll Hall Of Fame-n jo dute. Diotenez, jarraitzaileak pozarren daude zuzenekoan eskaintze duten kantu zerrendarekin, taldeak zuzenean inoiz jo ez zituen kantuak interpretatuz.

## THE MUFFS

Hamar urteren ondoren argitaratutako lehen diskoa aurkezttera datoz Andoainera, Whoop dee doo izenekoa. Power pop hirukotea 1990eko hamarkadan talderik indartsu eta dibertigarrienetarikoa bezala sailkatu zuten. Bolada batean Pixies edota Redd Kross taldeetako kideak taldeko kide izan dituzte.

## JOHNNY CASINO & THE SECRETS

Casino musikaren bidaiaria dela diote, erraztasun berarekin mugitzen baita rock and rollaren aldaera guztietan. Andoainera Australia aldeko The Secrets taldearekin batera dator, rock and roll klasikoa egiteko.



## LIE DETECTORS

Nuevo Catecismo Catolicoko abeslaria izandako Eneko Etxeandiarren talde berria da. Punk-rock musikatik haratago doa. Lehen kanta grabatu berri dituzte, eta horiek entzuteko aukera izango da larunbatean.

## JUAREZ

2012an Iruñerrian sortutiko talde psikodelikoa da. Eurek irekiko dute rock jaialdiaren zortzigarren edizioa. "Escafandra", 2014. urteko demorik onena izan zen Mondo Sonoro Zaratan.

## ORDUTEGIAK

18:30 Juarez.  
19:30 Lie Detectors.  
20:45 Johnny Casino.  
22:35 The Muffs.  
23:55 Flamin' Groovies.  
\* Ontzerriren Garagardo azoka metro gutxira egongo da.

## Ardo dastaketa bertako bodegaren eskutik



Andoainen duela gutxi Bacer bodega sortu da. Burgosen mahasti propioa dute eta Errioxa zein Ruedako bodega batzuen bazkide egin dira.

Enpresako kide bat Iñigo Celarain da eta enologa Irati Amondarain andoaindarra da.

Aurreko larunbatean erakustaldia egin zuten Txindoki tabernan, hogeita hamabi lagun aurrean.



## Tailerra euskaraz aritzeko



Maiatzean Andoingo Mintzalagunei eta Gurasolagunei zuzenduriko tailerra antolatu zuten. Bertan mintzalaguna den Fatima Cañok diru-zorro originalak egiteko lezioak eskaini zituen. Eskulanetan aritzeaz gain, euskaraz jarduteko aukera baliatu zuten. Hogeitik gora lagun bildu ziren denera. Antolatzaileek Cañori eskerrak eman nahi dizkiete.





## KIROL ALBISTEAK

### Datorren ikasturtean igeriketan murgiltzeko deia



Mikel Esnal eta Borja Apeztegia Buruntzaldea IKT taldeko kideak.

**D** datorren ikasturtean pentsatzen jarri da Buruntzaldea IKT igeriketa taldea, eta dagoeneko deialdia luzatu diete gaztetxoei. Probatzeko eta taldean sartzeko gonbita egin diete, benjaminei bereziki. “Deialdia haur guztientzako da, baina jasotzaile nagusiak 2007an jaiotakoak dira; horiek hasiko lirakeela-ko ibilbide osoarekin”, azaldu du Borja Apeztegia klubeko kideak. Dena den, edozeinek izena eman dezakeenez, bakoitzaren ikaskuntza mailari egokitzen zaion taldean jarriko luketela aurreratu dute.

Gero eta hobeto igeri egiten ikasteaz gain, taldekideekin giro onean ibiltzen eta klubaren parte sentitzen dira haurrak. Gainera, kirolariak balio positibo asko ikasten dituztela adierazi dute entrenatzaileek: “Talde guztiak mistoak dira, kirol askotan ez bezala. Horrek, berdintasunaren aldetik, bata bestearen onarpenean asko irakasten du. Bestalde, esfortzuaren kultura barneratzen dute, bizitzako beste alor batzuetarako baliagarria egingo zaiena”.

Gainera, lehiaketetara bideratutako kirola denez, aurkarien lagun izaten ikasteko eta jende berria ezagutzeko aukera dute. “Ur barnean baino, uretatik kanpo dagoena da kirolera lotzen zaitue-na”, dio Mikel Esnal igerilariak. Lehiaketetan jende asko ezagutzeko aukera dagoela eta igeriketak bizitza osorako lagunak ematen dituela uste dute. Honenbestez, hasiera batean kirol gogorra badirudi ere, igeriketa erakarpen handiko kirola dela aitortu dute.

Igerilari izateaz gain, entrenatzailea ere bada Mikel eta bere ustez, lehiaketek irakaskuntza handia eskaintzen dute. “Lehiak nola irabazi eta nola galdu erakusten du. Baita entenamenduetan ikasten ez diren balore asko ere: umiltasuna, errespetua, zure burua kontrolatzea...”, azpimarratu dute. Gainera, entrenamenduari zentzua ematen diona lehiaketa dela diote, horren baitan ikusten baitute zertan hobetu edo zein jokae-ra mota hartu.

Hori horrela, Borjak azaldu duenez, kirol bezala igeriketa gustatzen zaiona gerturatzen da taldera; bere entrenamendu, lehiaketa eta ikaskuntza sistemarekin. Lehengo urtean lehen aldiz aritu ziren ikasleak oso gustura ibili direla adierazi dute: “Beraien aldetik asko jarri dute, asko hobetu dute eta txikienak ondo moldatu dira”, dio Mikel Esnalek. Igeriketa zer den ikasten ari omen dira: arautegia, funtzionamendua, entrenamenduko dinamika... “Jakintza asko hartu behar dira eta oraingoz, igeriketa zer den ulertzen ari dira. Igeri egiten hastetik talde izatera pausu bat dago, eta horretan dabil-tza”, azpimarratu du Borjak.

Horretan jarraitzeko, azken urteetako gorakadari eutsi eta haur gehiago gerturatzea gustatuko litzaieke. “Kirol polita da. Probatu gabe ezin da jakin, beraz, probatu dezatela”, animatu dute. Izena webgunean eman behar da uztailaren 26a baino lehen, “izen-emateak” atalean “Andoain” sakatuta.

[buruntzaldea.blogspot.com](http://buruntzaldea.blogspot.com)

## Iturzaeta pala txapelketa herrikoia Sorabillan



Txapeldunak, txapeldun-ordeak eta antolatzaileak Iturzaetaren irudia erabiliz sariak egin dituzten auzoko haurrekin batera.

Txapelketa herrikoiko azken partidak ikusteko ikusmina bazegoen, eta jendez lepo bete ziren Sorabillako frontoiko bazterrak, larunbateko finalaurrekoetan eta igandean finalean ere. Pilotariak ez zuten hutsik egin, eta erakustaldi polita eskaini zuten. Nesketan, **Ainara Abregok** eta **Izarne Oiartzabalek** eskuratu zuten txapela, **Ainara Loiarre** eta **Irati Amondarain** 25-15 irabazi eta gero. Ainararen teknika eta Izarneren indarra hasieratik nagusitu ziren eta horri esker markagailuan aurretik joan ziren beti; estualdi handiegirik gabe iritsi ziren 25era, txapelketako bikoterik sendoena izan dela erakutsiz.

Mutiletan, anaiei arteko lehia ikusi ahal izan zen: Julen eta Ander Loidi batetik, eta Haritz eta Jon Eskudero bestetik. Erakustaldi polita eman zuten! Txapelketa osoan jokatu den neurketarik gogorrena eta lehiatuena izan zen, zalan-tzarik gabe. Ederki astindu zituzten besoak, zartako bikai-nak emanez pilotari. Loiditarak nagusitu ziren, 25-24.



Loidiren sasoia eta indarra erabakiorra izan zen txapela irabazteko garaian.

Sari banaketa ekitaldian gerta- era aipagarriak izan ziren. Txapelketaren arima den Mateo Ponceri hiru bertso abestu zizkieten Iñaki Arrutik eta Andoni Alvarezek; egiten dituen ahaleginagatik eskerrak emanez. Jon Eskudero, berriz, bertsoa bota zuen bat batean; Elixane eta Alaine Jauregi ahizpen aurka jokatu duen desafioa iragarritz. Bosgarren edizioaren balorazio ezin hobea egin dute antolatzaileek. Sendotu doa txapel-

keta, eta bereziki pozgarria da emakumeen parte hartzearen igoera.

#### ITURZAETA, PALA MEMORIALA

Aafizionatu mailako Iturzaeta txapelketa ere azken fasera iritsi da. Ekainaren 12an, ostir-larekin, bi partida jokatu-ko dira 21:30etatik aurrera: Iradi-Labiano/Altuna-Nicuesa eta Sanz-Arruti/Olano-Andonegi. Pala motzean goren mailan dauden zortzi pilotari ikusteko aukera izango da.

## Euskal Herriko trinkete finalera

Urnieta kirol elkarteko kideak pozarren egon daitezke, trinketean beste behin ere Euskal Herriko onenen artean daudela- lako.

#### URNIETA 30-7 ZARAMAGA

**Imanol Odriozola, kadeteak.**

Garaipen argia, sakearekin bereziki eginda. Finalean izango da meritu osoarekin.

#### URNIETA 40-9 ZARAMAGA

**Julen Loitegi, seniorrak.**

Denboraldi bat gehiago, eta hamaikagarren finala. Beste behin ere onenen artean.





# KIROL ALBISTEAK

## Herrikide askoren babesa jaso zuen Andoni Alvarezek

**A**ndoni Alvarez oso pertsona estimatua da Andoainen, eta horren adierazgarri izan zen Basteroko auditorioan bildu zen jendetza. Ainhoa Aiertza aurkezleak jasotako merituak zerrendatu zituen, "17 urtetan berebiziko ahaleginak egin ditu pilotaren alde, eta gainera, baloreak transmitituz. Hori aski ez eta makina bat lehia-keten bultzatzaile da: Gaztetxe-ko eskuzkoa, Iturzaeta palamotzekoa eta herrikoia, San Juan jaietako txapleketak, Kontsejupekoa eta abar luze bat".

Gazteleku elkarte osatzen duten guztien izenean, Jon Eskudero hartu zuen hitza, esker-rrak emateko. Maila pertsonaletik hitz egin zuen: "esan dezaket diruarekin ezin dela ordaindu zuk eman didazun guztia. Zuk bete duzu ez dudana zahar horren papera. Edozertan lagundu didazu, hezitzaile izan zara nirekin, behar nituenean aholkuak eman dizkidazu... Orain falta zaizuna zera da, niri neskaren bat bilatzea".

Bertsoak kantatu zituen segidan:

Hamasei urte artean  
oraindik mutil koxkorra.  
Sortu zenun proiektu bat  
ona eta iraunkorra.  
Arazo denen aurrean  
umila bezain baikorra,  
ume zein gurasoeekin  
beti gertuan tontorra.

Nolatan izan zintezke  
hain pertsona ulerkorra?  
Bi hitzetan esateko:  
umoretsua, jatorra.  
Agian merezi duzu  
gaur zuk urrezko danborra.  
Hori gabe ere zu zara  
Gaztelekuko altxorra.

### ESKER ONEKO HITZAK

Andoni Alvarezek urte horietan guztietan ondoan eduki dituen pertsonen eskerrak eman zituen, "Xebastian osabak, pilota eta euskal kultura maitatzen erakutsi zidan; Fermin Altunak eta Mikel Berraondok pilotaren sustapen lanari eutsi zioten Andoainen, gu heldu aurretik; Oier Mendizabal laguntzaile gisa, pilota eskolak jauzi kualitatiboa eman zuen; Irazu anaiak, Jauregi, Irastorza, *Kopetax*, Garita eta Belokik, pilota erakusle-



Andoni Alvarez pilota eskolako laguntzaile eta lagunekin.



Andoni Alvarezek Mikel Berraondo eta Fermin Altunaren lekukoa hartu zuen eskolan.

ak izan dira urtetan eta eskola bera sendotu egin dute; eta azkenik, Manex, Igor, Demi, Eskudero anaiak eta Mateo, eskola bizi-bizi mantentzen duten pertsonak dira egun; horiekin pilotak etorkizuna bermatuta dauka Andoainen".

Bere bizitzan berezi diren bi emakume ere aipagai izan zituen: "Amari eskerrak eman beharrean naiz; telefono mugikorrik ez zegoen garaietan, berak hartzen zituen ohar guztiak! Ainara neskagunak jasane behar duena ere ez da makala, ez baita erraza izan behar gauero hamarretan iristen den eta astebururik libre ez daukan mutil laguna edukitzea".

Mintzaldia amaitzeko, herriko politikariei mezua bidali zien Alvarezek: "Pilota Andoainen oso osasuntsu dago. 180tik gora pertsonen osatzen dugu, eta Euskal Herrian eskolarik onenen artean sailkatuta dago. Aurrera begira, gero eta egitura sendoagoa beharko dugu, baina

*Urte hauetan guztietan egindako lanaren aitortza egin zioten Basteron*

Arrate pilotalekuak ez ditu baldintzak betetzen. Badakigu ez dagoela dirurik udaletxean, baina apur bat daukazu egunean nahiko gure guran pentsatzea".

### BESTE AIPAMEN BEREZIAK

- Nagore Aritzaga Bera Berako jokalaria.
- Andoingo Txirrindulari Eskolako jubenilak: Peio Manteola, Jokin Alberdi, Koldo Velasco, Adrian Alamo eta Ander Amunarriz.
- Senior mailako Leizaran eskubalo taldea eta Izaskun Olasgasti jubenil mailako jokalaria.
- Gaztelekuko pilota eskola.
- Euskalduna futbol taldeko infantil, jubenil eta ohorezko mailakoak.

## Areto futboleko finala



Keler taldea txapeldun-orde izan da aurtengo edizioan.

Donostiako Hogar Extreme-  
ñok penaltietan irabazi zuen  
Andoingo areto futboleko

txapelketa, finalean Keler  
taldea gailenduz. Txapela az-  
ken penaltian erabaki zen.



Taldeetako hainbat ordezkari sari ezberdinak jaso zituzten.

## Kirol Astean jarduera ugari



Motos, Olano, Arrasate, Ziarsolo eta Etkezortu mahai-inguruan izan ziren.

Kirol Astean jarduera ugari  
egin zituzten, besteak beste,  
kirolariak osaturiko mahai-  
ingurua eta Zumba erakus-  
taldia.

Ekitaldi seinalatua kirol ai-  
pamenen gala izan zen, zein-  
ean bereziki Andoni Alva-  
rezen ekarpena omendu zu-  
ten.



Zumba erakustaldian partaide eta ikusle ugari bildu zen Golekoplazan.



**Oharra:** Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.com  
**Webgunea:** www.aiurri.com

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.com

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.com.  
www.aiurri.com.  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.com  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaileak:**

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia.  
Huarte-Iruñea.

# Agenda

EKAINAREN 11TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

## Zinema

**Andoain, Bastero**

- “Nuestro ultimo verano en Escocia”.
- Larunbata, 13: 19:30, 22:00.
- Igandea, 14: 19:30.
- Astelehena, 15: 19:30, 22:00.

**Urnietan, Sarobe**

- “Pride”.
- Ekainak 26 eta 28.

## Batzarra

**Urnietan, Lekaio**

- EH Bilduk deituta, hauteskunde balorazioa egiteko. 19:30 Lekaio.
- Ekainak 11, osteguna.

## Ikastaroak

**Urnietan, Sarobe**

- **Pilates**  
Astearte eta ostegunak: 9:00-10:00.  
Astelehen-asteazkenak: 19:00-20:00 / 20:00-21:00.
- **Gimnasia hipopresiboa**  
Astearte eta ostegunak: 11:00-11:30 11:45-12:15
- **Gazte funky**  
Astearte eta ostegunak: 10:00-11:00 11:00-12:00  
Izen ematea: 943 00 80 42.

## Erakusketa

**Andoain, Urigain**

- Udak ikastaroak: pintura, egur taila, eskulanak.
- Ekainaren 19tik 27ra.

## Hitzaldia

**Andoain**

- Eskualdeko mankomunitatearen eskutik, pardo berberagarri buruzkoa. 19:00 Pleno aretoa.
- Ekainak 15, astelehena.

## Euskara

**Andoain**

- Ikasteko aukera udan, AEK-ren eskutik. Epea: Ekainak 19, ostirala.

## Musika

**Andoain**

- **Andoingo Rock Jaialdia:** Flamin' Groovies, The Muffs, Johnny Casino & The Seacrets, Lie Detectors, Juarez. 18:00 Nafarroa plaza.
- Ekainak 13, larunbata.

## Azokak

**Andoain**

- **Garagardo Azoka** Arrate pilotalekuaren kanpoaldean. Kirol ekitaldi osagarriak egunero: desafioa, Iturzaeta memoriala, zesta kinielak eta Berria txapelketako final aurrekoak. 18:00etatik aurrera. Arrate. Ekainaren 11tik 14ra.
- **Bigarren eskuko azoka.** Izena emateko epea zabalik, ekainaren 26ra arte. Informazioa: 943 591 298. Uztailak 4, larunbata.
- **Stock azoka.** Salkin elkarteak merkatariei dei egiten die uztailaren 18an egin den azokan parte har dezaten. Informazioa: 637 955 030. itziarirurzun@hotmail.com Izena emateko epea: Ekainak 15, astelehena.

## Kultur Astea

**Andoain**

- Hogar Extremeñok antolatuta. Ekainak 11, osteguna 19:00 Santiagoko bide mozarabiarren inguruko mahai-ingurua Basteron.
- Ekainak 12, ostirala Musika eta dantza jaialdia Basteron. Gonbidapenak Hogar Extremeñon eskatu behar dira.
- Ekainak 13, larunbata 10:00 Toka eta bote txapelketa.
- 11:00 Areto futboleko finalak.
- 18:00 Sari emateak eta kultur astearen amaiera.

## Entseguak

**Andoain**

- **Axeri Dantzako** entseguak: Ondarreta ikastetxeko jo-lastokian, 20:00etatik aurrera. Datozen entseguak: Ekainak 12, 16, 18 eta 22.

## Argazkia

**Andoain, Bastero**

- Jaialdiaren amaiera ekitaldia. 19:00. Bastero. Ekainak 12, ostirala.
- **Jardunaldia**  
**Andoain, Goikoplaza**  
■ “Birziklatu proiektua”, gazteei zuzenduta. 16:30-19:00. Ekainak 13, larunbata.

## Aurkezpena

**Andoain, Bastero**

- “Gerra hura zergatik?” Le-kukotzak bildumako 9 eta 10 zenbakien aurkezpena lehenengo karlistaldiari buruzkoak Aurkezlea: Jon Unanue. Aurkezpenaren ondoren bi zenbakiak salgai jarriko dira bertan. 19:00 Ekitaldi aretoa. Ekainak 15, astelehena.

## Sanjuanak

**Urnietan**


- San Juan suaren inguruko festa, musika eta dantza saioekin. 22:00 Plazido Muxika plaza. Ekainak 23, asteartea.

**Andoain**

- San Juan jaiak Andoainen ekainaren 19tik 24ra. Pregoia eta jaien hasierako txupinazoa, Ainhoa Aier-tzaren eskutik. 20:00 Goikoplaza. Ekainak 19, ostirala.

## ZORION AGURRAK


**ZORIONAK**



Ekainaren 17an **Andonik** urteak beteko ditu. Zorionak eta ondo pasa, etxekoan partez.

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Mikel** Minguezek 11 urte bete-ko ditu uztailaren 11n. Zorionak etxeko guztien partetik eta muxu handia.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



**Andoni** Rosco Muñozek 4 urte bete ditu ekainaren 1ean. Zorionak txapel-  
dun!!! Muxu bat, etxekoak.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



Ekainaren 15ean **Karenek** urte bat egingo du. Ikaragarri maite zaitugu! Aitaxo, amaxo eta Alain.

**URNIETA**

**MERKATU TXIKIA**

12-14 urteko neska saharar baten-tzako bizikleta behar da udan. Libre

daukazu bat bi hilabetez? Deitu telefono honetara: 658-720-735. Mila esker.

## Jauregi zuzendari lanetan

**Eneritz Jauregi** andoaindarrak Getariko bandako zuzendari berria da. Aurreko igandean zuzendari lanetan bere bigarren kontzertua zuzendu zuen, herriko adinekoei eskaintzen zaien jaian. Prestakuntza handiko musikaria da, eta Lazkaon musika eskolako irakaslea. Argazkian, **Jokin Jauregi** tronpetajolearekin batera agertzen da. Getariko kontzertuan parte hartu zuen, hango banda txikia-  
rekin.



Jokin Jauregi eta Eneritz Jauregi.

**ANDOINGO III GARAGARDO AZOKA**

**EKAINAK 11-12-13-14**

**ARRATE FRONTOLEAN**

**Osteguna 11 Jueves:**  
18:00 - Azoka irekia / Apertura de feria  
19:30 - Pírica de castañas / Desfilo de Petola  
20:30 - Garagardo aurkezpena / Presentación de cerámica

**Ostirala 12 Viernes:**  
18:00 - Azoka irekia / Apertura de feria  
20:30 - Buzketa Murrizketa / Buzketa del Memorial Buzketa

**Larunbata 13 Sabado:**  
18:00 - Zesta txikiak (gastak) / Quincea de casta (Avenas)  
19:00 - Azoka irekia / Apertura de feria  
19:00 - Zesta txikiak (gastak) / Quincea de casta (Avenas)

**Igandea 14 Domingo:**  
18:00 - Azoka irekia / Apertura de feria

**Gulden Draak**

**GROSS**

**Krombacher**

**Antolatzaileak:**

**Banatzaileak:**

**ZAPIAIN**

**Aiurri**